



“Ikusgarritik ihes egiten duen zerbaiti forma emateko tema bezala ulertzen dut literatura”

IRATI ELORRIETA, IDAZLEA

Hamar urteko bilaketa prozesua behar izan du argia ikusteko, baina ikusi badu, bai ondo ikusi ere. Hamar urteren ostean kaleratu baitzuen *Neguko argiak* bigarren nobela (Pamiela), iazko urtearen hondarrear.

 GORKA EROSTARBE LEUNDA

 JAGOBA MANTEROLA / FOKU - GORKA EROSTARBE LEUNDA

Astiro hitz egiten du Irati Elorrietak (Algorta, Bizkaia, 1979), esan nahi baita, denbora hartzen duela esan nahi duen hori pentsatzeko. Ondoren, esan nahi duen hori abiada dezentekoan jaurtitzen baitu. Idatzi ere astiro egiten du. Duela hamar urte argitaratu zuen *Burbuilak*, estreinako lana. Bere buruari denbora eman behar izan dio idazketari behar besteko ganoraz ekiteko. Ibili, aldiz, urrats biziz. Hogei urte egin ditu Berlinera joan zenetik, eta pauso lasterrekin eraman gaitu bere auzora, Weddingera, eta auzo barruko bere auzora: Gesundbrunnen-era. Berlinen hain sarriak diren terraza txiki eder horietako batean hartu dugu pausalekua, maiatzeko udaberri egun fresko bateko azken argitan.

Deserrotzea da dagoen literatur material indartsuenetako bat?

Deserrotzearen beste aldea identitatearen bilaketa da, eta bai, niretzako bada literaturarako material indartsua, baina uste dut beste gai batzuk direla jendearen arreta hartzen dutenak.

Adibidez?

Bada, euskal literaturaren kasuan, adibidez, argi eta garbi ETA edo gatazka armatua. Horiek hartzen dituzte letra handietako titularrak.

Bitxia da diozuna: askok egotzi izan baitio euskal literaturari gutxi idatzi izan dela gatazkaz.

Beno, gutxi edo asko erlatiboa da, non-

dik begiratzen duzun. Nik ez dut uste gutxi idatzi denik, eta uste dut gantxo duen gaia dela, ez bakarrik literaturan.

Nola bizi duzu zuk errelatoaren gaia? Alemanian bizi den Fernando Arambururen *Patria* fenomeno bat izan da Espainian. Irakurri duzu?

Ez dut irakurri. Berlingo liburu-denda handietako erakuslehoetan egon da liburua. Zur eta lur geratu nintzen hemengo egunkarietan irakurri nuen Aramburuk idatzi duela euskal gatazkaren errelatoa egiten duen lehen nobela handia. Idazten duenaz ezer ez dakien kazetariak, beste norbaiten interesen arabera errepikatzen eta erreproduzitzen ditu zenbait eduki. Gehienetan ez gara konturatu ere egiten.



38
EL CORRETA

Gurean pisu handiegia izan du gatazkak? Baita literaturan ere?

Ez nuke esango literaturan pisu handiegia izan duenik, bizitza errealean izan duen presentziarekin eta inpaktuarekin erlazioan ikusita. Hor bai, egunerokoan, gehiegizkoa egin zait gatazkak garai batzuetan hartzen zuen espazioa. Urtetan blokeo handia egon dela sentitu dut, eta gero, halako neke bat ere bai.

Deserrotzea ez da derrigorrean deserriaren sinonimo. Ala bai?

Ez du zertan batera joan, ez? Ez dut halako terminotan pentsatzen idaztean. Egiten dudana hurbilketa ez da analitiko edo kontzeptuala. Ez dut tesi batetik abiatuta idatzi. Gai horien inguruan, edo gai horietatik hurbil idatzi dut, ez dakidan, baina interesatzen zaidan zer-baiten bila-edo. Noraeza eta bilaketa ikusten ditut hitz horiei lotuta, min mota bat ere bai. Liburuan agertzen den gai bat honakoa da: pertsonaia nola dagoen fisikoki leku batean, baina burua beste nonbait izanik, Vietnamen, edo Sopelan... Mentalki beste espazio batean daude. Eta hori da egunerokoa; ez da noizean behin gertatzen zaizun zer-bait. Permanenteki dago hor, eta horrekin bizitzea da kontua. Ez dakit deserria den edo deserrotzea. Bi lekutan egotea da.

[Pausa luze bat egin du] Ez dakizula inoiz sentituko zaren hemen han bezala, baina zer da "han bezala" hori? Ez da espazio kontua soilik. Han bezala da beste garai bat, duela hiru urte, duela hamar urte... egoera hori ere ez da existitzen. Ia ez dagoen zerbaitekin alderatzea da.

Zergatik egiten zaizu zuri interesgarri deserrotzearen gaia?

Tentsio bat sortzen delako, eta nor zaren ez jakite bat. Uste dut identitateari buruzko gaiak literarioki badutela indarra: nor zara, nola bizi zara... Inora joan gabe ere galdera horiekin konfrontatuta egon zaitzake, baina beste leku batera zoazenean, kasik ez daukazu aukerarik ez konfrontatuta egoteko. Erantzun behar dituzun galdera batzuk dira.

Identitatearen gaia garaiokin lotzen duzu bereziki, jendarte likido eta mugikorrarekin? Horrek ekarri du deserrotzearen tentsioa?

Bizi dugun garaiarekin lotutako zer-bait da, eta horregatik ikusten dut material

literario bezala. Horretaz hitz egitean automatikoki ari zara hitz egiten bizi dugun garaiak. Uste dut interesatzen zaizkidanak direla identitate bilaketa horren istorioak. Baldin badakizu nor zaren, hor ez dago istoriorik. Istorio bat izateko, bilaketa egin behar da. Dena baldin badakizu, ez dago istoriorik.

Deserrotzearen kontzeptua literatura ekartzeko bide desberdinak jorra daitezke: bat izan liteke epika dramatikotik jotzea, bestea era sotil leunagoan. Bigarren aukera egin duzu zuk?

Bai, uste dut aukera hori egin dudala gai horrekin eta beste batzuekin ere bai. Bikote harreman toxikoena, esaterako. Kostatu egin zait hor kokatzea. Drama handiak edo epikoak kontatzea ez da nire estiloa. Nola egin hala ere tentsioari eusteko, irakurlearen arretari eusteko? Eta ez banoa dramara? Hortik behera joan nahi badut eta irakurlea nirekin eraman, non kokatuko naiz? Hori izan da erronka.

Eta aurkitu duzu oreka hori?

Ez dakit aurkitu dudana, baina hor dago bilaketa. Ez dut autopista hartu, bide txikietatik joan naiz, paisaiari begira. Eta hor dago borroka: pixka bat gehiago behar du, gutxiago behar du? Erabakiak etengabekoak dira, eta batzuetan oso txikiak. Esaldi hau gehiegizkoa da; ez badut esaten kasu inor ez da enteratuko zertaz ari naizen.

Berridazketa asko, ezinbestean.

Bai, etengabe aritu naiz berridazten, txukuntzen, konpontzen. Bertsio pila bat idatzi ditut. Batzuk estruktura orokorri dagozkionak, non kokatu zer, hori da asko probatu dudana gauza bat. Eta beste bat da: noiz ari naiz gehiegi kontatzen, noiz gutxiegi.

Beste behin ere nobela urbanita bat eraiki duzu. Hiri espazioak garrantzi handia du: Paris, Berlin... Baina esan liteke, era berean, urbanita izanik ere, kanpokoak bezainbesteko garrantzia duela etxe barrukoak.

Bai, baina ez da izan kontzientea. Liburuko eszenen laurdena sukalde batean gertatzen da. Eta sukaldeaz gain, etxe barrua asko dago. Hala ere, egia da, hiria oso presente dago. Nik uste dut liburu honetan ez duela zentzu handirik espazio publikoaren

ren eta espazio intimoaren arteko dikotomiak. Harremana dialektikoa da. Etxean mundua sartzen da, eta alderantziz, egon zaitzake kanpoan eta oso zure baitara bildurik. Nik uste dut gauza batzuk ez direla gertatzen kontzientziaren planoan, eta beste bide bat hartzen dutela. Liburua irekitzen duen zidak esaten du leihoak direla etxe baten zentzumenak. Etxe batean leihoak jartzen dituzun momentuan mundua sartzen da. Barruko espazioetan titudan eszena horietan leihoak daude. Leihoak zabalik daude. Barrua eta kanpoa ez ditut ikusten banatuta.

Paralelismo bat: literatura bizitza sartzeko leihoa izan daitezke? Alegia, literatura eta bizitza ere ezin banatuzkoak zaizkizu?

Literatura leiho bat da beste espazio eta denbora batzuetako espazioekin harremanetan jartzeko. Leiho batek egiten duen lotura norabide bikoitzekoa da, eta literaturak ere barrukoarekin jartzen gaitu harremanetan.

Hamar urte igaro dira *Burbuilak* aurreko liburua argitaratu zenuenetik. Hasieratik garbi zenuen *Neguko argiak* nobela izango zela?

Hasieratik nekien nobela zela, eta ez zela beste zer-bait. Eta segituan konturatu nintzen sartu nintzela arazo handi batean; umeak izan nituen eta neraman bizitzarekin ia ezinezkoa baitzen nobela bat idaztea. Nobela bat idazteak eskatzen du barrua sartzea eta egotea hor barruan. Egon eta egon eta egon... Ur azpian. Nik egiten nuen sartu eta irten, sartu eta irten... Horrela ezin zen nobela bat idatzi, baina nobela bat zen!

Twitterrik erabiltzen duzun ez dakit, baina Iñigo Aranbarrik honakoa idatzi du sare sozial horretan zure liburuaz: "Xehetasunetik babes bila dabilen jendearen koadro korralera, ze bitxia Irati Elorrietaren *Neguko Argiak* nobelari darion edertasuna". Bi atal dauzka iruzkinak. Zer iritzi?

Nik ez dut Twitterrik, baina Twitter dute-nek bidali didate. Ni ez nintzateke gauza izango hain gauza gutxiarekin nobelaren funtsa deskribatzeko. Horrekin ados nago behintzat.

Eta bigarrenarekin?

Gustatu zitzaidan edertasunaren ondoan kalifikatiboa *bitxia* izatea. Ez dakit berak nondik esaten duen, baina niri gustatu zitzaidan irakurtzean. Konbinazioa gustatu

“Dena baldin badakizu, ez dago istoriorik”



egiten zait. Edertasuna modu askotakoa izan baitaiteke, eta bizi gara gizarte batean non edertasuna den bat eta bakarra. Eta *bitxia* ez dut sartzen hor eta horregatik gustatzen zait. Kanonetik ateratzen den edertasun bat iradokitzen du. Bizi garen denboran edertasunaren kontzeptua oso estandarizatuta dago, eta hortik irteten den zerbait izatea, eta ederra izatea, gustatzen zait.

Deserrotzerik izan duzu literaturarekin garairen batean?

Ez, ez dut izan. Gertatu zait pentsatzea idaztea bigarren mailako gauza bat zela niretzako. Nire buruari ez diot aitortu izan niretzako idazteak zer-nolako garrantzia duen. Badago une bat konturatzen naizena ez dela bigarren mailakoa eta tiraderatik atera eta lehen planoan jarri dut idaztea, horrela sentitzen bainuen. Sekula ez naiz alboratu erabat, sekula ez nau nekatu idazteak, baina ez dut jakin aitortzen zeukan garrantzia.

“Azken batean, oraingoan ere ez daki zeren atzetik dabilen”, dio narratzaile-

leak une batean. Irati Elorrieta zeren atzetik dabil literaturan?

Nik ere ez dut jakiten zeren atzetik nabilen, haztamuka noa, itzulinguruka. Intuizioak gidatutako aldiak eta erreflexiozkoak txandakatuz, prozesuan joan naiz konturatzen zeintzuk diren errepikatzen diren gauzak, edo testuan dauden gauzak. Espazioaren eta denboraren aldebere-kotasun hori nola kontatu, edo nola kontatu zerbait dramarik gabe baina indarra duena, erresistentziaren gaia, nola batu pertsonaia guztien istorioak testuaren gorputzera, eta nire barruan dauden ahots ugari horiek. Ilunpea izan da abiapuntua, eta apurka apurka, argirantza. Literatura ulertzen dut ikusgarritik ihes egiten duen zerbaiti forma emateko tema bezala.

Literaturak, orokorrean, zein marka uzten du zure bizitzan?

Nik ezin dut irudikatu bizitza irakurri gabe. Literatura bizitzeko modu bat da, bai idaztea eta baita irakurtzea ere. Ezin dut banatu bizitza eta literatura; egote-

ko modu bat da, gauzei erreparatzeko modu bat. Niri oreka ematen dit. Literaturaren kanala zabalik dagoenean jada ezin dut irudikatu bizitza hori gabe. Abstraktuak ez diren markak ere uzten ditu literaturak bizitzarekin oso uztartua doanean: liburu honen idazketa prozesuak marka fisikoak utzi dizkit larruazalean. Gure gorputzaren muga da larruazala eta erreakzio bortitzak izan ditu.

Egun ez omen dago distantziarik mundu global honetan, dena eta denok gaude interkonektaturik. Zuk euskal literatura, hemen egonik, distantziatik ikusten duzu ala ez?

Euskal Herrian euskal literaturan dabilen jendearekin alderatuta distantziarekin ikusten dut, baina ziur ikusten dudala Euskal Herrian bizi den jende askok baino hurbilagoatik. Jende asko Euskal Herrian bizi da eta ez zaio literatura interesatzen ezer ere. Nik jarraitzen dut euskal literatura, zer publikatzen den, irakurtzen ditut gauzak... Zentzu horretan distantziarik ez daukat. Baina ez dut jakiten jendeak zer hitz egiten duen liburu honetaz edo hartaz. Hori ezin dut, baina hedabideetatik jasotzen dudana eta nik neuk irakurtzen dudana bai.

Eta jasotzen duzun horretatik zer ikusten duzu oraintxe?

Ikusten dut aniztasun handia. Ikusten dut aniztasuna belaunaldietan, gaietan, hautatzen diren generoetan, ia zentzu guztietan. Eta pentsatzen dut ona dela hori.

Zein da Berlingo txoko literarioena zuretzat?

Bat baino gehiago dago, baina metroa batez ere. Gustatzen zait antena jarrita egoitea metroan. Metroa oso literarioa da. Eta ni, batez ere, bizikletaz ibiltzen naiz, gutxi erabiltzen dut metroa, baina oso adi joaten naiz.

Asko aldatu da Berlinen zu etorri zinetik metroko paisanajea?

Uste dut metroan dirua eskatzen dutenen egoera okertu egin dela, eta geroz eta gehiago direla, gainera. Orain askoz ere turista gehiago dago, duela 20 urte ia apenas zegoen hemen turistarik.

Berlinek gordetzen du oraindik ere istoriorik, nobelarik, zuretzat?

Orain idazten ari naizena ez dago Berlinen kokaturik. Igual atsedena behar dut, edo ez dakit... Baina jarraitzen dut idazten. ●